

Prentsa oharra

Nota de prensa



Infernua bizitegi- eta zerbitzu-auzoan bilakatuko da eta gutxi gorabehera 500 etxebizitza izango ditu

Infernuaren Plan Orokorren aldaketak aurreikusten du Añorgako ubidea berreskuratzea eta balioan jartzea

Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio gaur Infernuaren Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari.

Aldaketak bi eremu proposatzen ditu. Alde batetik, erabilera tertziariorako gunea, hain zuzen ere, Zuatzura daraman Zubiberri bidearekin lotura izango lukeena. Eta bertan, zerbitzu berriak jarriko dira, esaterako, Nazaret Zentroaren egoitza berria. Bestetik, zerbitzu gunehori eta ibilgailuen kontzesionarioaren artean bizitegi-gunea egongo da, eta bertan, gutxi gorabehera 500 etxebizitza egingo dira - horietatik %60 babes ofizialekoak -.

Halaber, egun norabide aldaketa egiteko eremuan biribilgune berri bat egingo da, bertako trafikoa arintzeko. Eta era berean, egungo zerbitzugunea eta ibilgailuen kontzesionarioa kontsolidatuko dira.

Gainera, Plan Orokorren aldaketak aurreikusten du. Añorgako ubidea berreskuratzea eta balioan jartzea, baita ubidearen ondotik parke bat egitea ere.

Karlos I

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Campeo Obras y Servicios enpresari esleitzea Karlos I-aren zubibidearen azpiko oinezkoentzako pasabidea egokitzeko proiektuaren lanak egiteko kontratua.

Lan horien esleipen prezioa 291.372 eurokoa da, eta enpresak 8 aste izango ditu lan horiek egiteko.

Helburu nagusia honakoa da: bide hori Amara gurutzatzeko erabiltzen duten pertsonen segurtasun sentazioa hobetzea. Eta horretarako, oinezkoen gunea zabalagoa egingo da; irisgarritasuna hobetuko da, dauden zintarriak kenduz; argia hobetuko da; eta gunea jolas-leku bihurtuko da.

Horrenbestez, bide azpitik doan oinezkoentzako pasabidea gunehori abegitsu eta seguru batean bilakatuko da.

dBizi

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du segidako kontratua bertan behera uztea: Kalean bizikleten alokairu sistema automatizatu bat ezarri, kudeatu eta mantentzeko kontratua, hain zuzen ere, dBizi bezala ezagutzen den sistema. Eta kontratua bertan behera utziko da behin Bonopark enpresa esleipendunarekin adostuta.

Kontratua bertan behera uzteak ez du esan nahi dBizi zerbitzuaren amaiera denik, izan ere, Bonopark enpresaren zerbitzua bermatu egiten da, harik eta esleipen berria egin arte. Udala, dagoeneko, kontratuaren baldintza berrietan lanean ari da.

Prensa oharra

Nota de prensa



Honakoak dira kontratua bertan behera uzteko arrazoiak: Bizikleta publiko mistoko sistema (elektrikoa + mekanikoa) txertatzeko beharra ikusi da, hain zuzen ere, hiriko garraio publikoaren sarearen barruan egongo den sistema.

Era berean, segidako beharrak ere ikusi dira: tarifa-sistema aldatzeko beharra, hobekuntza teknologikoak txertatzeko beharra, eta gainera, zerbitzua berrantolatzeko beharra, geltoki gehiago izango dituen bizikletak alokatzeko sistema publikoa martxan jartzeko, besteak beste, egun sistema hau ez duten auzoetan.

Jolastokietako Haurreskola

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Urbycolan enpresari esleitzea, Jolastokietan Haurreskola jartzeko lokalak egokitzeko proiektua egiteko kontratua.

Obra honen esleipen prezioa 643.929 eurokoa da eta enpresak 7 hilabeteko epea izango du.

Jolastokietako Haurreskola 2020an irekiko da Goi-Jolastokietan dagoen plazan, eta segidako zerbitzuak izango ditu: 0-1 urte bitarteko haurrentzako lau gela; 1-2 urte bitarteko haurrentzako beste lau gela; erabilera anitzeko gela bat; bulegoa; biltegia, aldagela, komuna, instalazioen gela; aulkitxoak uzteko bi gun e estaliak; eta plazan bertan jolas-lekua.

Aglomeratua

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Excavaciones y transportes ORSA enpresari esleitzea 2018KO Aglomeratu Kanpainaren proiektua egiteko kontratua.

Kontratu honen esleipen prezioa 727.579 eurokoa da, eta enpresak 8 aste izango ditu lanak egiteko.

Kanpaina honen bidez, segidako kaleen errepideak konpondu nahi dira:

- Ondarretako biribilgunea
- Pío Baroja pasealekua, 2 zenbakian dagoen biribilgunetik, Sanserreka pasealekuko biribilgunea arte
- Errondo pasealekua, Podavineseko biribilgunetik, Catalina de Erauso arte; eta Easo kaletik, Pedro Manuel Colladoko biribilgunera.
- Arbos Musikariaren pasealekua
- Alkolea pasaia
- Aldakonea kalea, Karmengo Ama Birgina eta Ametzagaina artean
- Berio pasealekua, Europa plaztik Berioko biribilgunera
- Aita Orkolaga pasealekua, Iturrietako Bentak eta Txalin bidearen artean
- Bertsolari Txirrita pasealekua, Herrerako pasealekutik, Harrobieta plazako 16.zenbakia arte
- Aita Donostia plaza
- Frantzia pasealekua
- Egia kalea, Mandasko Duketik Ametzagaina arte
- Jose María Salaberria kalea, Pedro Manuel Collado kaletik, Podavinesera.

Prensa oharra

Nota de prensa



Gizarte Ekintza

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, jarraipena ematea 2019ko martxoaren 1etik aurrera segidako kontratuari: Bazterte arriskuan dauden pertsonen zuzendutako gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean laguntzeko esku-hartze zerbitzu kontratua. Asociación para la Reinserción Social Erroak-ek jarraituko du zerbitzua ematen, eta kontratuaren prezioa 263.375 eurokoa izango da.

Tokiko Gobernu Batzordeak, halaber, onartu du hasiera ematea segidako kontratua esleitzeko prozesuari: Intxaurrondoko gizarte zerbitzuen zentroan gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen eta familien zuzendutako Otorduak programarako janaria.

Kontratuaren helburua da, boluntarioek egunero 25 menu banatzea gizarte bazterketa egoera larrian diren pertsona zein familia artean. Eta pertsona zein familia horiek Intxaurrondoko Gizarte Zerbitzuguneen kasu arduradunek hautatuko dituzte.

Kontratu honen aurrekontua 44.165 eurokoa da, eta bi urteko iraupena izango du.